

KOSTUEN EGITURA

Proiektu honetan ez dago saltzeko ezer, beraz, alde horretatik ez da kosturik egongo, baina hasieran lokala berritzeko, logelak egiteko, etab, diru behar da eta hori izango da proiektu honetan kosturik garrantzitsuena, nahiz eta mantenuan zehar beste kostu batzuk izan, alegia, beti egongo direnak eta bezero kopuruaren arabera, aldatuko direnak: lokalaren alokairua, argiaren faktura, gasaren faktura, uraren faktura...

Aurrera egin ahala, kostu aldagarriak egongo dira erabiliko dugun materiala dela eta. Adibidez, lokala berritzeko beharko diren tresnak, garbiketakoak, oholak, margoak, etab. Hemen gehienbat kostu mota hau egongo da, izan ere, zerbitzu hau eskainita ez da bueltan ezer eskatzen eta, beraz, ez da ezer saldu edo irabaziko. Baina dirua gastatu beharra dago langileekin, hau da, zerbitzu honetan lan egingo duten pertsonen ordaindu beharko zaien soldata, sukaldariei eta garbitzaileei esaterako.